

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 22/2019 Foru Dekretua, apirilaren 9koa. Onestea Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei 2020-2021 aldian laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia**

Arabako Batzar Nagusiek, 2017ko apirilaren 12ko osoko bilkuran, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzeko 9/2017 Foru Araua onetsi dute; haren denbora-eremuak 2018. eta 2023. urteen bitarteko aldia biltzen du, biak barne.

Foru arau horretan Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko Laguntzen Programari dagozkion xedapenak daude adierazita, eta laguntza mota guztiak ematerakoan aplikatu beharreko arau eta irizpideak zehatz azaltzen dira; bestalde, administrazioak egin behar dituen kontratazioen arloan legetari eduki behar zaion begirunearekin batera, ongizatea eta garapena areagotzeko behar diren berme juridikoak ere sartzen ditu.

Horretarako, foru arauak bere azken xedapenetako lehenean foru araua garatzeko eta beteazteko xedapen osagarriak ezartzeko ematen duen ahalmena aplikatuz, eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezarritakoa aplikatuz, obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako toki erakundeei 2020-2021 aldirako laguntzak emateko eta haiek eskuratzeko prozedura garatzen duen deialdia aurkezten da.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreaken Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei 2020-2021 aldirako laguntzak emateko deialdia onestea, bat etorritik laguntza programa norgehiagoka araubidean arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauarekin.

Bigarrena. Eskerak izapidetzeko eskaera inprimakia eta inprimaki osagarriak onestea; dekretu honen I. eranskin gisa jaso dira.

Hirugarrena. Dirulaguntza konpromisoak, 32.230.920,00 euro guztira, 2018. urterako onetsitako eta 2019rako luzatutako Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko 10.2.03.16.01.762.00.02 partidaren (2020-2021eko Obra eta Zerbitzuen Foru Plana) kontura egingo dira. Hona hemen 2020 eta 2021 ekitaldietarako konpromiso kredituak xehakaturata:

- 16.115.460,00 euro; 19.6.20 taldea, 10-6 lerroa.
- 16.115.460,00 euro; 19.6.21 taldea, 10-1 lerroa.

Laugarrena. Dirulaguntza horiek ematea Arabako Lurralde Historikokoaren 2020ko eta 2021eko aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean egongo da eta hari egokitu beharko zaio.

Bosgarrena. Aurreko xedapen zatian adierazitako zenbatekoak gorabehera, ekitaldi bakoi-terako urteko kredituaren benetako zenbatekoa apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauak (Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duena) 5. artikuluan ezarritakoaren arabera aurreikusitako horniduraren mende egongo da.

Seigarrena. Laguntza eskaerak eta eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2019ko ekainaren 10eko 24:00etan amaitu.

Zazpigarrena. Eskabideak aurkezteko era.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen, toki erakunde bakoitzak erabakia hartu beharko du, bere antolaketa eta funtzionamendu araubidearen arabera, eskatzen dituen obra eta zerbitzuei buruz.

Behin erabakia hartuta, tokiko erakundeek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<https://e-s.araba.eus>) aurkeztuko dituzte eskaerak; beraz, ezinbestekoa izango da eskatzaileek, aldez aurretik, ziurtagiri elektronikoa izatea. Egoitza Elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo "Ezagutu egoitza–Nola sartu" izeneko atalera.

Eskaerarekin batera, eta obra motaren arabera, "Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiri osagarriak" azpiatalean adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira. Horretarako, azpiatal horretako jarraibideak jarraitu beharko dituzte eskatzaileek.

Bidali beharreko agirien bolumena 10MB baino gehiago bada, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean aurkeztu ahal izango dira edo harekin hitzarmena izenpetuta duten toki erakundeetako erregistro orokorretan.

Eskaerarekin batera bidali beharreko agiri osagarriak:

Eskaerarekin batera, eta eskatutako obra motaren arabera, honako agiri osagarriak aurkeztu beharko dira honako jarraibide hauei jarraituz:

a. Obraren eskaera inprimakiaren osagarriak diren inprimakiak: obraren eskaera fitxaren osagarriak diren inprimakiak PDF editagarrian daude honako webgune honetan: <http://www.araba.eus/es/-/plan-foral-obras-servicios-2020-2021> (gaztelaniaz) edo <http://www.araba.eus/eu/-/plan-foral-obras-servicios-2020-2021> (euskaraz). Horiek, eskatutako obraren tipologia kontuan hartuz bete beharko dira.

Bete behar diren inprimakien zerrenda, eskatutako obraren tipologiaren arabera, ondoko hau da:

– S1 inprimakia-Hirigintza arloko teknikari aholkulariaren txostena: Eskatutako jarduketa guztietarako aurkeztu beharko da inprimaki hau eskaerarekin batera; haren bidez, toki erakunde eskatzaileak hirigintza gaietan duen teknikari aholkulariak frogatu beharko du, aurkeztutako dokumentuan oinarrituta, egingo den obra edo zerbitzuak udalaren hirigintza planeamendua betetzen duela, bai eta irisgarritasun eta mugikortasun arloan indarren dagoen araudia ere (9/2017 Foru Arauaren 12.3.c artikulua).

– S2 inprimakia-Teknikari aholkulariaren txostena, 35.000.00 euro baino gutxiagoko jarduketak egikaritzeko proiektu teknikoak behar duela justifikatzeko: 35.000.00 euroko baino gutxiagoko egikaritze aurrekontua duten obraren eskaeretan soilik aurkeztu beharko da inprimaki hau, 9/2017 Foru Arauaren 8. artikuluko g) letran adierazitakoa betetzeko.

– S3 inprimakia-Zentzuzko inbertsio kostua justifikatzen duen txostena: Gastu arruntean aurrezki nabarmena dakarten instalazioen eskaera zehazetan soilik bete beharko da inprimaki hau, 9/2017 Foru Arauaren 8. artikuluen 1.d) atalean eta 9. artikuluen 1.c) atalean xedatutakoa justifikatzeko.

– S1 inprimakia-Desjabetze gastuak: Desjabetzeren bati lotutako eskaeretan soilik bete beharko da inprimaki hau. Kasu horretan, laguntza programa honen kontura diruz laguntzen diren oinarritzko azpiegiturak egikaritzeko desjabetze gastuen finantzaketa aipatu beharko du eskaerak, eta eskaerarekin batera aurkeztutako azpiegitura obraren dokumentazio teknikoan aurreikusita egon beharko dute gastu horiek.

– SI2 inprimakia-Partzuergoaren onespén ziurtagiria: Toki erakundearen eskaeran hornidura edo saneamendu sareetako jarduketak badira eta haien zerbitzuak partzuergo batean badaude soilik bete beharko da inprimaki hau.

– SE1 inprimakia-Bideragarritasun plana (I) eta (II) ekipamenduen kasuan: Toki erakundearen eskaera 9/2017 Foru Arauaren 7. artikulua 3. atalean "ekipamendu eta zerbitzu obra" gisa sailkatuta dauden obrei buruzkoa bada soilik bete beharko dira inprimaki hauek. Kasu horretan, ematen diren inprimakien arabera bideragarritasun plana aurkeztu beharko da, 9/2017 Foru Arauaren II. kapituluaren I. eranskinaren "Hiri altzariak" atalaren aurreko azken paragrafoan adierazitakoa betetzeko: SE1 (I) erakunde eskatzailea administrazio batzarra bada, eta SE1 (II) udala edo kuadrilla bada.

b. Eskaerari lotutako dokumentazioa:

– Egin beharreko obra edo zerbitzuaren proiektua, aurreproiektua, memoria edo azterlana. Hartan, obraren edo zerbitzuaren izaerari eta eginkizunari, formari, eraikuntzari eta ekonomiari lotutako ezaugarriak xehetasun nahikoarekin deskribatuko dira, eta guztizko kostuaren zenbatespena agertuko da, behar bezala xehakaturik (gauzatzeko materialaren kostua + gastu orokorrak + mozkin industriala + indarreko BEZa), baita profesionalen zerbitzu sariaren guztizko kostuen aurreikuspena ere.

– Oinarrizko azpiegiturako obrak gauzatzeko beharrezkoak diren desjabetze gastuei dagokienez, proiektu edo memoria balioetsia aurkeztu beharko da. Desjabetzea eskatzen duen garatu beharreko jarduketa deskribatu behar du, desjabetu beharreko partzelen edo finen aurreikuspena zehaztu, haien hedadura eta ezaugarriak adierazi, eta desjabetzeko ondorioetarako balioetsi.

– 9/2017 Foru Arauaren I. eranskinaren II. kapituluaren ezarritakoaren ondorioetarako, edozein motatako berariazko babesa duten eraikinak badira, izaera berezia justifikatzeko erakunde eskudunak egindako txostena erantsi beharko da. Txosten horren ordez, sailkapen hori onartzen duen argitalpen ofizialaren erreferentzia aurkeztu ahal izango da.

Zortzigarrena. Onestea Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko 2020-2021eko laguntzen programa arautzen duten oinarriak, zeinak jarraian jaso baitira.

1. Kontzejuek eta udalek (Gasteizkoak ez) eskatu ahal izango dituzte ezarritako laguntzak, bai eta Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek ere, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duen apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauak (aurrerantzean, 9/2017 Foru Araua) 4. artikuluan ezarritako irismenarekin.

Onuradun izateko, toki erakundeak Arabako Toki Erakundearen Erregistro Ofizialean inskribaturik egon beharko du eskaerak aurkezteko ezarritako epearen azken eguna baino lehenago.

2. 9/2017 Foru Arauaren 7. artikuluan adierazitakoak dira diruz lagundu daitezkeen obrak.

Foru arauaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, urbanizazio edo oinarrizko azpiegiturako obretan sartutako ekipamendu jarduketa osagarriak (eskudelak, zakarrontziak, markesinak, bankuak, hiri hondakin solidoak biltzeko sistemak lurperatzea edo ezkutatzea, lorategiak, etab.) joko dira oinarrizko azpiegiturako obratzat. Urbanizazio edo azpiegitura obretan sartutako ekipamendu jarduketak osagarriak direla ondorioztatuko da jarduketa horiei dagokien diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren zenbatekoa obraren diruz lagundu daitezkeen aurrekontu guztiaren ehuneko 25 baino gehiago ez denean. Diruz lagundu daitezkeen aurrekontuak (moduluak, gehienezko azalerak, etab.) zehazteko arauak eta jarduketa osagarri bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko aplikatu behar den dirulaguntza ehuneko zehaztekoak 9/2017 Foru Arauaren ekipamendukotzat jotzen diren mota bereko obretarako ezarritakoak izango dira.

Diruz lagundu daitezkeen obrei dagokienez:

1. Argiteria publikoa edo 9/2017 Foru Arauaren 8. artikularen 1d) atalean edo 9. artikularen c) atalean aipatzen diren azpiegitura edo ekipamenduen beste edozein elementu berritzeko jarduketetan:

Inbertsio bat zentzuzkotzat joko da baldin eta, toki erakundeei berariaz emango zaien eta haiek behar bezala beteta aurkeztu beharko duten S3 inprimakian ageri den kalkulu formula aplikatuta, emaitza 0,33 edo gehiago bada, berritu beharreko instalazioak edo elementu nagusiek 5 urte edo gutxiago badituzte. Zaharragoak badira (15 urte, gehienez), inbertsioa zentzuzkotzat jo ahal izateko lortu behar den emaitzak honako formula hau aplikatuta lortzen dena edo handiagoa izan behar du:  $0,33 - [(A-5) \times 2 \times 0,01]$ ; A = egungo instalazioak dituen urteak.

Justifikazio hori eskaerarekin batera aurkeztu beharko da. Epe horretan aurkezten ez bada edo aurreko paragrafoan adierazitakoa aplikatuz zentzuzko inbertsioetat jotzeko baldintza betetzen ez bada, eskaera baztertu egingo da 2020-2021 deialdiaren eremuan.

2. Udaleko edo udal arteko eguneko arretarako zentroak: Eskaerarekin batera, edo eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta gehienez bost hilabeteko epean, eguneko arretarako zentroak eskatzen dituen toki erakundeak agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Ardura hori bere gain hartzen duen erakunde kudeatzaileak zerbitzua abian jarriko duela bermatzen duen agiri ofiziala.

b) Toki erakunde eskatzailearen eta gizarte ongizatean eskumena duen eta eskatutako ekipamenduan zerbitzua emango duen foru sailaren artean sinatutako hitzarmena.

3. 9/2017 Foru Arauko 1. eranskinaren II. kapituluan aipatzen diren hiri altzariak diruz lagungarritzat jotzen dira bai tokiko mailan, bai toki artekoan. Dirulaguntzaren gehienezko ehunekoa 1. eranskinean jasotako diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren ehunekoa 50 da.

4. Merkataritza jarduerarik ez dagoen entitateetan dendak sortzeko eraikinak:

Dirulaguntzaren gehienezko ehunekoa 1. taulan jaso dira. Aplikatu beharreko moduluak 5. taulan adierazitakoak dira, bai tokiko eremuan, bai toki artekoan. Herrian merkataritza jarduerarik ez dagoela dioen ziurtagiria aurkeztu beharko da, bai eta obra amaitzen denetik 5 urte igaro baino lehen jarduerari ekiteko konpromisoa jasotzen duena ere.

5. Toki erakundeek eskatutako urbanizazio obretan, sare edo instalazioen zerbitzua partzuergo baten bitartez ematen bada, eskaera toki erakundeak egintzat joko da, baina, hori berresteko, sare edo instalazioen erabiltzailea den partzuergoak emandako dokumentua aurkeztu beharko du toki erakundeak eskaerarekin batera. Eskatutako jarduketak dirulaguntza jasotzen badu, toki erakunde eskatzaileari emango zaio dirulaguntza. Dirulaguntzaren onuraduna den erakundeak eta kasuan kasuko partzuergoak sinatu beharko dituzte bai proiektuaren onarpena, bai jarduketaren harreraren akta, dirulaguntza jasoz gero.

6. Uraren zikloaren sareen zati bat udalaren titulartasuneko bada eta gainerakoa beste toki erakunde txiki batena, aurreko paragrafoan ezarritakoa aplikatu ahal izango da, eta toki erakunde txikiak egin ahal izango du eskaera, baldin eta jarduketak bien titulartasuneko sareetan egiten badira.

7. Zoladura: Araudi bereziren batek (KIA, BIA...) hala eskatzen badu soil-soilik onartuko dira foru arauaren I. eranskineko I. kapituluko zolatzeari buruzko atalak aipatzen dituzenez bestelako zoladura akabera batzuk. Bestela, erakunde eskatzaileak 9/2017 Foru Arauaren I. eranskineko I. kapituluko 3. taulan jasotakoak baino akabera hobek aukeratzen baditu, "Goi estetiko beste akabera batzuk eta berrikuntza teknologikoko produktu berriak" motakotzat joko dira eta han adierazitako modulu espezifikoak aplikatuko da.

8. Toki eremuko frontoiak estaltzea: herrigunean frontoi publiko estalirik ez badago eta haren gaineko azken jarduketaren antzinatasuna 15 urtekoa edo gehiagokoa bada, ehunekoa udaleko edo toki arteko eremuko estali gabeko frontoiak estaltzeko aplikatu beharrekoa izango da.

9. Edozein motatako berariazko babesa duten eraikinak badira, foru arauaren I. eranskineko II. kapituluaren ezarritakoaren ondorioetarako, izaera berezia justifikatzeko, erakunde eskudunaren txostena erantsi beharko da. Txosten horren orde, sailkapen hori onartzen duen argitalpen ofizialaren erreferentzia aurkeztu ahal izango da.

10. Ekipamendu obra sailkatuetarako eskaeren kasuan, eskuragarri jarritako inprimakiaren arabera egindako bideragarritasun plana aurkeztu beharko da, epe berean. Izaera horretako eskaerak ez dira diruz lagungarriak izango ez baldin badute frogatzen, bideragarritasun planaren inprimakiaren bitartez eta hor azaldutako moduan, ekipamenduaren mantentze gastuek ez dutela defizitik eragingo toki erakundearen kontuetan.

9/2017 Foru Arauaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, dirulaguntza eskatu ahal izateko edo onartutako dirulaguntza jasotzeko eskubideari eusteko, toki erakunde onuradunek neurri egokiak hartu beharko dituzte, aipatutako baldintzak bete daitezten.

3. Obrak eta zerbitzuak finantzatzeko gehieneko ehunekoak, ordainsari teknikoak alde batera utzita, foru arauaren 9. artikuluan adierazitakoak dira.

4. Laguntza mota.

a) 9/2017 Foru Arauan jasotako oinarrizko azpiegiturak, ekipamenduak eta zerbitzuak jartzeko obrak eta zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak,

b) Programa honetako dirulaguntzez benetan finantzatzen diren proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko ordainsariak finantzatzeko dirulaguntza.

Behar diren ordainsari teknikoen (foru arauaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuak) ehuneko 50 finantzatu ahal da gehienez, baldin eta finantzaketa hori obrak eta zerbitzuak gauzatzeko laguntzak ematen dituen ebazpenean berariaz onartzen bada eta lan hauetakoren bat egiteko badira:

a) Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak obra diruz lagundutakoan eskatutako aurretiazko azterlanak, memoriak, proiektu teknikoak eta segurtasun zein osasun planak idaztea.

b) Obrak eta zerbitzuak koordinatzea eta osasun eta segurtasun planak zuzentzea.

c) 9/2017 Foru Arauaren 7. artikuluko 2.2 bis apartatuan aipatzen diren desjabetze gastuetarako dirulaguntza.

9/2017 Foru Arauaren 6. artikuluen 3. apartatuan aipatutako desjabetze kostuen finantzaketarako eskaerekin batera, gutxienez ere, memoria balioetsia aurkeztu beharko da, eta memoria horretan honako hauek jasoko dira: desjabetzea eskatzen duen jarduketaren deskribapena, desjabetu beharreko partzela edo finken aurreikuspen xehaketa, azaleraren eta ezaugarrien azalpenarekin, eta haien balioespina desjabetzearen ondorioetarako. Dirulaguntza jasotzen badute, Balioespen eta Katastro, Lurralde Antolamendu eta Hirigintza zerbitzuetara edo desjabetzeetan espezializatuta dagoen eta behin betiko dirulaguntza kalkulatzeko oinarriztat hartuko diren azterlana eta balioespina egiteko eskumena daukan zerbitzura joko dute, eta dirulaguntza 9/2017 Foru Arauaren 11. artikuluan ezarritako baldintzen menpe geratuko da.

Desjabetutako eremu edo azalaren ordainketen ondoriozko gastuak soilik lagundu ahal dira diruz, eta sortzen diren bestelako gastu guztiak baztertuko dira, hala nola kudeaketa gastuak, profesionalen ordainsariak, okupazio azkarrak eragindako kalteak etab.

Dirulaguntzaren muntaren kalkulua honako hiru zenbaterako hauetatik txikiaren gainean egingo da: kalte ordain (balio justu) gisa finkatutako azken zenbatekoa, eskaerarekin batera aurkeztutako balioespina eta Aldundiko zerbitzu espezializatuek egindakoa, aurreko paragrafoetan aipatu dena.

Jarduketa mota honetan aplikatu beharreko dirulaguntza ehuneko gehienez ere ehuneko 90 da.

Honela ordainduko da dirulaguntza:

a) Desjabetzea presaz egiten bada, behin toki erakundeak okupazioaren aurretik gordailuaren orria formulatutakoan, aurretiazko okupazio aktan eta gainerako dokumentazioan oinarrituta.

b) "Ohiko" prozeduraren (presakoa ez dena) bidez izapidetzen bada, behin balio justua finkatutakoan.

Egindako ordainketen justifikazioa foru administrazioan aurkezteari dagokionez, aurkezpen hori foru arauaren 18. artikuluan 5. apartatuan ezarritako epean egingo da, hau da, hiru hila-beteko epean dirulaguntza ordaintzen den egunetik zenbatuta.

#### 5. Finantzaketa.

Dirulaguntza esleipenak foru aldundia honen dagokion ebazpenaren bidez onetsiko dira, egindako eskaeran oinarrituta eta foru arauan eta xedapen honetan ezarritako prozeduraren arabera.

Horrela emandako dirulaguntzak behin-behinekoak izango dira; eskatzen diren agiri teknikoak berraztertu egingo dira aurkeztu ondoren eta, gero, obren adjudikazioaren arabera doituko dira.

Eman beharreko dirulaguntzak Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren finantza zuzkiduraren kargura finantzatuko dira, bai urteko zuzkiduraren kontura, bai aldi horretako konpromiso kredituen kontura, edo xede horretarako gaitu litezkeen kontura, foru arauaren seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren aplikazioari kalterik egin gabe.

#### 6. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea.

1. Obrak eta zerbitzuak finantzatzeko aurreikusi diren dirulaguntzen ehunekoak diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatuko zaizkio hasiera batean, hau da, foru arauaren 11. artikuluan ezarrita dagoen moduan zehaztutakoari. Era berean, aintzat hartuko dira foru arauaren 11. artikuluko 1. apartatuaren a) letran zehaztutako kalkulu berezitasunak.

2. Aplikatutako gastu orokorrak eta industria etekinak ezin izango dira guztira ehuneko 19 baino gehiago izan.

#### 7. Eskaerak aukeratzeko eta balioesteko irizpideak.

9/2017 Foru Arauaren 13. artikuluan aipatzen den behar eta defizit egoeraren indizeak oinarritzko kalifikazio hauek izan ditzake: gehienezkoa, garrantzitsua, komenigarria edo gerora daitekeena.

1. Gerora daitekeen eskaeratzat joko dira, hainbat inguruabar tarteko, obra behar bezala aztertzerik ez badago, dokumentazio tekniko edo aurrekontuko bidali ez delako eta horrek egikaritzearen atalak bereiztea eragozten duelako; hainbat arrazoiengatik, hala nola lursail erabilgarririk ez dagoelako, beste obra batzuk aurretik egikaritzea komenigarria delako edo, beste inguruabar batzuk direla medio, ezin bada egikaritu; gaia dela-eta eskudunak diren beste organo batzuen txostenik, baimenik edo irismenik ez egoteak jarduketa laguntza programan xedatutako aldi egikaritzea zaildu badezake; edo epe laburrean edo ertainean egikaritzea ezinbestekotzat jotzen ez bada. Nolanahi ere, geroko deialdiarako uzteko modukotzat jo ahalko da, deialdi honetan hura estaltzeko aurrekontua izan arren.

2. 9/2017 Foru Arauaren 13. artikuluko 2. apartatuan aipatutako aldagaien haztapena honako hau izango da 2020-2021ko deialdirako:

a) aldagaia = ehuneko 40.

b) aldagaia = ehuneko 40.

c) aldagaia = ehuneko 20.

3. 2020-2021eko programako deialdian ez da aplikatuko 9/2017 Foru Arauaren 12. artikuluko azken paragrafoan aipatzen den ezespren kausa.

#### 8. Organo eskudunak.

Eskaerak eta horiekin batera datorren dokumentazioa jasota, Tokiko eta Udalaz Gaindiko Azpiegiturak Sustatu eta Finantzatzeko Zerbitzuaren ardura izango da haiek aztertzea eta instrukzio txostena egitea, 9/2017 Foru Arauan eta deialdi honetan xedatutakoaren arabera diruz lagundu daitezkeen obrak, zerbitzuak eta ordainsari teknikoak ebazteko proposamenean gauzatuko dena.

Ebazteko proposamena kide anitzeko organo bati aurkeztuko zaio. Organo hori Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailaren titularrak eta Lurralde Orekaren Zuzendaritzaren titularrak osatuko dute.

Deialdia bi urtean behingoa denez, aurreikusten da segidako ebazpenak egin ahal izango direla, horretarako behar den aurrekontua badago. Prozedurako kide anitzeko organoak Gobernu Kontseiluari egiten dion proposamenean ezarritako hurrenkerari jarraituko zaio.

#### 9. Ebazpena jakinaraztea.

1. Eskaerak ebazteko epea 7 hilabetekoa izango da, haiek aurkezteko epea bukatzen denetik zenbatuta, eta inondik inora ezingo da 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenago ebatzi.

2. Ebazpen horrek amaiera emango dio bide administratiboari.

#### 10. Kontratazioa eta dirulaguntza ordaintzea.

1. Laguntzen onuradun diren toki erakundeek administrazio publikoen kontratuen arloan indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin bat etorritik esleitu eta kontratatuko dituzte obrak.

Baldin eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 142. artikulua babesean, administrazio klausula berezien agirian jasotzen bada behar bezala balioetsitako aldaera eta hobekuntzen eskaintza aintzat hartzeko aukera, emateko dirulaguntza murriztu egingo da, enpresa esleipendunaren aldaeren eta hobekuntzen balioespenak esleutako obraren kostu osoarekiko duen ehuneko berean murriztu ere.

Arau orokor gisa, laguntzak jasotzen dituzten toki erakundeek zuzenean izapidetu eta kontratatuko dituzte obrak. Horretarako, aholkuak emango dizkiete Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailaren unitateek eta Arabako Foru Aldundiko beste batzuek, behar izanez gero.

Baldin eta, proiektatutako obraren barruan, hirugarrenen titulartasuneko edo eskumeneko leku edo instalazioetan jarduketaren bat egin behar bada, hirugarren horiek beren gain hartu ahal izango dute obra horiek kontratatzeko eta egiteko ardura. Aldez aurretik lankidetzaren hitzarmena sinatuko da, eta han jasoko dira, besteak beste, sinatzen duen alderdi bakoitzaren konpromisoak eta jarduketak behar bezala eta araudian ezarritakoa betez egikaritzeko behar diren beste alderdi guztiak.

2. Dirulaguntza ordaintzeko, 9/2017 Foru Arauaren 18. artikulua ezarritakoa beteko da.

Ordaintzaren aurretik, toki entitate onuradunak bere idazkariak edo fede emaileak egindako ziurtagiri bat aurkeztu beharko du; bertan ziurtatuko da toki entitatearen diruzaintzak bermatu egiten duela diruz lagundutako obraren finantzaketarako jasotako funtsen eskuragarritasun berehalakoa eta eskusiboa, eta konpromisoa hartuko da kontratistari ahalik eta lasterren, betiere 20 egun igaro baino lehen, ordainduko zaizkiola dirulaguntza gisa jasotako zenbatekoak, behin horiekin estali beharreko obra ziurtagiriak eta fakturak jasotakoan.

Nolanahi ere, dirulaguntzaren azken ehuneko 30a ordaintzeko baldintza izango da bete beharreko administrazio dokumentu guztiak Tokiko eta Udalaz Gaindiko Azpiegiturak Sustatu eta Finantzatzeko Zerbitzura bidaltzea: lana egin aurrekoak nahiz egin bitartekoak, hala nola aktak, hasierakoa, zuinketa egiaztatzekoa eta harrerakoa, amaierako ziurtapena etab.

Foru arauaren 7. artikulua 3.6 eta 3.13 apartatueta jasotako jarduketak finantzatzeko emandako dirulaguntzen kasuan eta aipatutako artikulua 2.2.bis apartatuko kasuan, horretarako onetsitako arauketan ezarritako baldintzak betetakoan egingo da ordainketa.

3. Kontratistari zuzenean ordaintzeko modalitatea hautatzen bada, dirulaguntzen konturako ordainketa egin aurretik, erakunde onuradunek behar bezala onartutako obra ziurtagiriak eta jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko dira eta Arabako Foru Aldundiak izendatutako zerbitzu izapidegileko teknikari eskudunek ontzat eman beharko dituzte, aurkeztutako ziurtapen bakoitzari dagokion muntan.

4. Obra zuzendaritzako eta segurtasun eta osasun arloko koordinazioko ordainsarietarako dirulaguntzak obra amaitu eta gero ordainduko dira, 18. artikulua 3. apartatu d) letran ezarritakoari jarraituz.

5. Onartutako dirulaguntza emateko eta jasotzeko ezarritako baldintzak bete beharra gorabehera, deialdi honen babesean emandako dirulaguntzen bidez finantzatzen diren obrak amaituta eduki behar dira 2021eko abenduaren 31rako. Egun horretarako, halaber, eginda egon beharko dira foru arauaren 6. artikuluko 3. apartatua aipatzen diren desjabetzeen ordainketak.

11. Informazioa eman beharra.

Dirulaguntzaren erakunde onuraduna behartuta dago Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak; Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak; Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dioten informazio guztia ematera.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 9a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua*


**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**IÑAKI GUILLERNA SÁENZ**



## I. ERANSKINA

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	<b>OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA</b> <b>PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS</b>	<b>Programa 2020-2021</b>	<b>S1</b>
	<b>Hirigintza arloko teknikari aholkulariaren txostena</b> <b>Informe de la técnica o técnico asesor en materia urbanística</b>		

Ekonomia Garapenaren  
eta Lurralde Oreka Saila

Departamento de Desarrollo Económico  
y Equilibrio Territorial

Lurralde Oreka  
Zuzendaritza

Dirección de  
Equilibrio Territorial

Toki Erakundea ■ Entidad Local	
Obraren izena ■ Denominación de la obra	
Udal teknikaria edo kuadrillakoa ■ Técnica o técnico municipal o de la cuadrilla	
Telefono zk. ■ N° de teléfono	

D./D.<sup>a</sup> ..... jaunak / andreak

toki erakunde eskatzaileko hirigintza  
arloko teknikari aholkulariak

técnica o técnico asesor en materia urbanística  
de la entidad local solicitante,

**INFORMATZEN DU**


Aurkeztutako dokumentuan oinarrituta, egingo den obra edo zerbitzuak udalaren hirigintza planeamendua betetzen duela, bai eta irisgarritasun eta mugikortasun arloan indarren dagoen araudia ere.

**INFORMA**

Con base en el documento presentado, la obra o servicio a realizar cumple el Planeamiento Urbanístico Municipal, así como la normativa vigente en materia de accesibilidad y movilidad.

.....  
(Tokia eta data / Lugar y fecha)

Udal teknikaria edo kuadrillakoa  
Técnica o técnico Municipal o de la Cuadrilla

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<b>OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA</b> <b>PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS</b>	<b>Programa 2020-2021</b>	<b>S2</b>
	<b>Udal teknikari aholkulariaren txostena, guztira 35.000 € baino gutxiagoko obretarako</b> <b>Informe de la técnica o técnico asesor en obras con coste total inferior a 35.000 €</b>		

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreakaren Saila

Departamento de Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial

Lurralde Oreakaren Zuzendaritza

Dirección de Equilibrio Territorial

<b>Toki Erakundea</b> ■ Entidad Local
<b>Obraren izena</b> ■ Denominación de la obra
<b>Udal teknikaria edo kuadrillakoa</b> ■ Técnica o técnico municipal o de la cuadrilla
<b>Telefono zk.</b> ■ N° de teléfono

D./D.<sup>a</sup> ..... jaunak / andreak

toki erakunde eskatzailearen teknikari aholkulariak

técnica o técnico asesor de la entidad local solicitante,

#### INFORMATZEN DU


Deialdian eskatutako obra edo zerbitzuak, 35.000 euro baino gutxiagoko guztirako kostua duenak (lizitazioaren oinarritzko aurrekontua + BEZa), PROIEKTU TEKNIKOA BEHAR DU gauzatu ahal izateko.

#### INFORMA

La obra o servicio solicitado en la convocatoria, cuyo Coste Total (Presupuesto base de licitación + IVA) es inferior a 35.000 euros, PRECISA DE PROYECTO TÉCNICO para su ejecución.

.....  
(Tokia eta data / Lugar y fecha)

**Udal teknikaria edo kuadrillakoa**  
Técnica o técnico Municipal o de la Cuadrilla

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<b>OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA</b> <b>PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS</b>	<b>Programa 2020-2021</b>	<b>S3</b>
	<b>15 urte baino gutxiagoko azpiegitura edo ekipamenduetan aurrezpena dakarten sistemak baloratzeko inprimaki-txostena</b> Valoración de sistemas que generen ahorro corriente en el caso de infraestructuras o equipamientos con menos de 15 años de antigüedad		

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreakaren Saila

Departamento de Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial

Lurralde Oreakaren Zuzendaritza

Dirección de Equilibrio Territorial

<b>Toki Erakundea</b> Entidad Local
<b>Eskatutako obra</b> Obra solicitada
<b>Ordezkatu nahi den instalazioaren data (urtea)</b> Fecha de la instalación que se pretende sustituir (año)

GASTU ARRUNTAK EGUNGO SISTEMAREKIN GASTOS CORRIENTES ANUALES CON EL SISTEMA ACTUAL	
1 <b>Kontsumoak</b> ■ Consumos	
2 <b>Konponketak</b> ■ Reparación	
3 <b>Osagaiak aldatzea</b> ■ Reposición de elementos	
4 <b>Urteko mantentze kuota (edo urtekotua)</b> ■ Cuota de mantenimiento anual (o anualizada)	
5 <b>Besteren bat (zehaztu)</b> ■ Otros (especificar): .....	
<b>GUZTIRA ■ TOTAL (X)</b>	0,00 €


GASTU ARRUNTAK AURREIKUSITAKO SISTEMA BERRIAREKIN GASTOS CORRIENTES ANUALES CON EL NUEVO SISTEMA PREVISTO	
1 <b>Kontsumoak</b> ■ Consumos	
2 <b>Konponketak</b> ■ Reparación	
3 <b>Osagaiak aldatzea</b> ■ Reposición de elementos	
4 <b>Urteko mantentze kuota (edo urtekotua)</b> ■ Cuota de mantenimiento anual (o anualizada)	
5 <b>Besteren bat (zehaztu)</b> ■ Otros (especificar): .....	
<b>GUZTIRA ■ TOTAL (Y)</b>	0,00 €

INSTALAZIO BERRIAN EGINGO DEN INBERTSIOAREN GASTUA GUZTIRA GASTO TOTAL DE LA INVERSIÓN A REALIZAR EN LA NUEVA INSTALACIÓN	
1 <b>Inbertsioaren kostua</b> ■ Coste de la inversión	
2 <b>Inbertsioari lotutako beste gastu batzuk</b> ■ Otros gastos asociados a la inversión:	0,00 €
- <b>Proiektuaren ordainsariak</b> ■ Honorarios de proyecto	
- <b>Beharrezko instalazio osagarriak</b> ■ Instalaciones accesorias necesarias	
- <b>Abian jartzeko gastuak</b> ■ Gastos de puesta en funcionamiento	
- ...	
<b>GUZTIRA ■ TOTAL (Z)</b>	0,00 €

<b>KALKULUA EGITEKO FORMULA ■ FÓRMULA DE CÁLCULO</b>	<b>(X-Y)/Z</b>
--	----------------

<sup>1</sup> Apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauaren 9. artikulua c) idatz zatiaren arabera inbertsioa arrazoizkotzat jotzeko, aurreko formula aplikatuta ateratzen den emaitzak Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2020-2021 Plangintzaldiko deialdiaren 2. oinarri arautzailearen a) idatz zatiaren 1. azpidatz zatiak aurreikusitakoa bete behar du.

<sup>1</sup> Para que la inversión se considere razonable en los términos planteados en el apartado c) del artículo 9 de la Norma Foral 9/2017 del 12 de abril, el resultado obtenido de la aplicación de la fórmula anterior debe cumplir lo previsto en el subapartado 1 del apartado A) de la base 2ª de las reguladoras de la Convocatoria de ayudas correspondiente a Plan Foral de Obras y Servicios 2020-2021.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<b>OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA</b> <b>PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS</b>	<b>Programa 2020-2021</b>	<b>SI1</b>
	<b>Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kontura diruz lagundu diren oinarrizko azpiegitura obrak desjabetzeko gastuetarako dirulaguntza eskaera dela-eta egindako dokumentazio teknikoari buruzko ziurtagiria</b> Certificación sobre documentación técnica referida a la solicitud de subvención económica para gastos de expropiaciones de obras de infraestructura básica, subvencionadas con cargo al Plan Foral de Obras y Servicios		

Ekonomia Garapenaren  
eta Lurralde Oreekaren Saila

Departamento de Desarrollo Económico  
y Equilibrio Territorial

Lurralde Oreekaren  
Zuzendaritza

Dirección de  
Equilibrio Territorial

<b>Toki Erakundea ■ Entidad Local</b>
<b>Desjabetzapen gastuetarako dirulaguntza eskaeraren xede den jarduera</b> Actuación para la que se solicita subvención para gastos de expropiaciones

<b>Ebazpenaren data</b> Fecha en la que se ha adoptado la resolución	
---	--

D./D.<sup>a</sup> ..... jaunak / andreak

aipatutako erakundearen idazkariak, kontu-hartzaileak  
edo kudeatzaileak

el/la Fiel de Fechos (o, en su caso, Secretario/a,  
Interventor/a, o Gerente) de la citada entidad,

### ZIURTATZEN DU

Honako hau erabaki dela, gorago aipatutako eguneko ebazpenaren bidez:


1. Onartzea eskatutako jardueraren proiektu/memoria (balioztatua), honakoak zehazten dituena: eskatutako desjabetzapena eta desjabetu beharreko lurra edo finak zeintzuk diren, horietako bakoitzaren azalera, ezaugarriak eta balorazioa adierazita.

### CERTIFICA

Que mediante resolución de fecha que arriba se señala, se ha adoptado el siguiente acuerdo:

1. Aprobación del proyecto/memoria (valorada) de la actuación solicitada, en la que se concreta la expropiación requerida y se detalla la previsión de las parcelas o fincas a expropiar, con indicación de la extensión, las características y la valoración de cada una de ellas.

<b>Proiektua/memoriaren (balioztatua) idazlea</b> Proyecto/Memoria (valorada) redactado por
<b>Idazketa data</b> Fecha de redacción

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava	<b>OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA</b> PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS	Programa 2020-2021	<b>SI1</b>
---	--	--------------------	------------

2. Aurreko paragrafoan aipatutako dokumentu teknikitik ondoriozta daitekeenez, honakoa da desjabetzapeanaren eragina duten lurzatieen edo finken xehetasuna:

2. Que, según se desprende del documento técnico citado en el apartado anterior, el detalle de las parcelas o fincas afectadas por la expropiación es la siguiente:

izaera (landakoa/ hirikoa)	katastro deskribapena descripción catastral			katastro titularra titular catastral	okupazioaren m <sup>2</sup> / ocupación m <sup>2</sup>			Lurzatiaren balorazioa (euro)	
	naturaleza (rústica/ urbana)	udalerría municipio	poligonoa poligono		lurzatia parcela	izena eta deiturak nombre y apellidos	iraunkorra permanente		behin-behinekoa provisional
lur azalean superficie m <sup>2</sup>				lur azpian subsuelo m <sup>2</sup>			lur azalean superficie m <sup>2</sup>	Valoración de la parcela (euros)	
<b>Guztira Total</b>						0	0	0	0,00

3. Honako dokumentazio teknikoak bidaltzea:

- Egiaztapen honen 1. atalean aipatutako proiektua/ memoria (balioztatua)
- Bestelakoak:

.....

.....

.....

.....

.....

3. La remisión de la documentación técnica siguiente:

- Proyecto/memoria (valorada) a que se refiere el apartado 1 de esta certificación
- Otras:

.....

.....

.....


.....

.....

(Tokia eta data / Lugar y fecha)

O. E. Alkate – lehendakaria  
Vº Bº El/La Alcalde/sa – El/La Presidente/a

Idazkaria – Kudeatzailea  
El/La Secretario/a – El/La Fiel de Fechos – Gerente

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<b>OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA</b> <b>PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS</b>	<b>Programa 2020-2021</b>	<b>SI2</b>
	<b>Partzuergoaren adostasun egiaztagiria</b> <b>Urbanizazio obretarako laguntza eskaerak,</b> <b>zerbitzuetako bat Partzuergoan dagoenean</b>  <b>Certificado de conformidad del Consorcio</b> <b>Solicitudes de ayuda para obras de urbanización</b> <b>cuando la prestación de alguno de los servicios está consorciado</b>		

Ekonomia Garapenaren  
eta Lurralde Oreakaren Saila

Departamento de Desarrollo Económico  
y Equilibrio Territorial

Lurralde Oreakaren  
Zuzendaritza

Dirección de  
Equilibrio Territorial

Partzuergoaren izena ■ Nombre del Consorcio	
Harremanetarako pertsona ■ Persona de contacto	Telefono zk. ■ N° de teléfono
Obraren izena ■ Denominación de la obra	
Toki erakunde eskatzailearen izena ■ Nombre de la entidad local solicitante	

<b>Ebazpenaren data</b> Fecha en la que se ha adoptado la resolución	
---	--

D./D.<sup>a</sup> ..... jaunak / andreak

PARTZUERGOAREN idazkariak, kontu-hartzaileak  
edo kudeatzaileak

el/La Fiel de Fechos (o, en su caso, Secretario/a,  
Interventor/a o Gerente) del CONSORCIO,

### ZIURTATZEN DU

### CERTIFICA

Honako hau erabaki dela, gorago aipatutako eguneko  
ebazpenaren bidez:

Que mediante resolución de fecha que arriba se señala,  
se ha adoptado el siguiente acuerdo:

Partzuergoak adierazten du ados dagoela goian  
adierazitako obra egiteko eskaerarekin, bai eta onartu  
den dokumentu teknikoan\* jasota dagoen bezala  
jarduera burutzearekin.

El Consorcio presta su conformidad a la solicitud  
realizada para la obra arriba señalada, así como  
a la ejecución de la actuación en los términos  
que figuran en el documento técnico aprobado\*.

.....  
(Tokia eta data / Lugar y fecha)


**O. E. Alkate – Lehendakaria**  
Vº Bº El/La Alcalde/sa – El/La Presidente/a

**Idazkaria – Kudeatzailea**  
El/La Secretario/a – El/La Fiel de Fechos – Gerente

(Zigilua / Sello)

\* Jarduera hori Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2020-2021 plangintzaldian diruz lagunduta egonez gero, partzuergoak **behin betiko dokumentu teknikoan onartu** eta obraren **harrera aktaren** onarpena egiaztatu behar du. Dokumentu horien onarpen aktak Arabako Foru Aldundiaren Tokiko eta Udalerriaz gaidiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaletaren Zerbitzura bidali behar dira, horiek onartu eta, gehienez ere, hilabete bateko epean.

\* En el caso de resultar subvencionada la actuación en la convocatoria del Programa del Plan Foral de Obras y Servicios 2020-2021, el Consorcio deberá **aprobar el documento técnico definitivo**, así como acreditar su aprobación al **acta de recepción** de la obra. Los certificados de aprobación de estos documentos deberán ser remitidos al Servicio de Promoción y Financiación de Infraestructuras Locales y Supramunicipales de la Diputación Foral de Álava en un plazo máximo de 1 mes desde su aprobación.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	<b>OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA</b> <b>PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS</b>	<b>Programa 2020-2021</b>	<b>SE1</b> <b>UDALAK KUADRILLAK</b> <b>AYUNTAMIENTOS CUADRILLAS</b>
	<b>Bideragarritasun ekonomikoaren plana ekipamendu obrak egiteko eskaeratarako</b> <b>Plan de viabilidad económica para peticiones de obras de equipamiento</b>		

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreakaren Saila

Departamento de Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial

Lurralde Oreakaren Zuzendaritza

Dirección de Equilibrio Territorial

Toki Erakundea Entidad Local
Eskatutako obra Obra solicitada

### DIRU SARRERA ARRUNTAK ■ INGRESOS CORRIENTES

Aitortutako eskubide garbiak, onartutako azken aurrekontu likidazioko diru sarrera arruntenak	ekitaldia ejercicio .....	Zenbatekoa ■ Importe
Derechos reconocidos netos de ingresos corrientes de la última liquidación presupuestaria aprobada		
<b>1 Zuzeneko zergak (1. kapitulua) ■ Impuestos directos (Capítulo 1)</b>		
<b>2 Zeharkako zergak (2. kapitulua) ■ Impuestos indirectos (Capítulo 2)</b>		
<b>3 Tasak eta beste diru sarrera batzuk (3. kapitulua) ■ Tasas y otros ingresos (Capítulo 3)</b>		
<b>4 Transferentzia arruntak (4. kapitulua) ■ Transferencias corrientes (Capítulo 4)</b>		
<b>5 Ondare bidezko diru sarrerak (5. kapitulua) ■ Ingresos patrimoniales (Capítulo 5)</b>		
<b>6 Guztirako partziala (1 + 2 + 3 + 4 + 5) ■ Subtotal de 1 + 2 + 3 + 4 + 5</b>		0,00
<b>Aurreikusitako diru sarrera arruntak, eskatutako ekipamenduaren funtzionamendukoak</b>		
Ingresos corrientes previstos del funcionamiento del equipamiento solicitado		Zenbatekoa ■ Importe
<b>7 Aurreikusitako diru sarrera arrunten guztirako partziala ■ Subtotal de ingresos corrientes previstos</b>		
<b>8 Diru sarrera arruntak, guztira (6 + 7) ■ Total Ingresos corrientes (6 + 7)</b>		0,00


### GASTU ARRUNTAK ■ GASTOS CORRIENTES

Aitortutako betebeharrak garbiak, onartutako azken aurrekontu likidazioko gastu arruntenak	ekitaldia ejercicio .....	Zenbatekoa ■ Importe
Obligaciones reconocidas netas de gastos corrientes de la última liquidación presupuestaria aprobada		
<b>1 Langile gastuak (1. kapitulua) ■ Gastos de personal (Capítulo 1)</b>		
<b>2 Zerbitzu eta ondasun arrunten erosketak (2. kapitulua) ■ Compras de bienes corrientes y servicios (Capítulo 2)</b>		
<b>3 Finantza gastuak (3. kapitulua) ■ Gastos financieros (Capítulo 3)</b>		
<b>4 Transferentzia arruntak (4. kapitulua) ■ Transferencias corrientes (Capítulo 4)</b>		
<b>5 Finantza pasiboak (9. kapitulua) ■ Pasivos financieros (Capítulo 9)</b>		
<b>6 Guztirako partziala (1 + 2 + 3 + 4 + 5) ■ Subtotal de 1 + 2 + 3 + 4 + 5</b>		0,00
<b>Aurreikusitako gastu arruntak, eskatutako ekipamenduaren funtzionamendukoak</b>		
Gastos corrientes previstos del funcionamiento del equipamiento solicitado		Zenbatekoa ■ Importe
<b>7 Aurreikusitako gastu arrunten guztirako partziala ■ Subtotal de gastos corrientes previstos</b>		
<b>8 Gastu arruntak, guztira (6 + 7) ■ Total Gastos corrientes (6 + 7)</b>		0,00

DIRU SARREREN ETA GASTU ARRUNTEN ARTEKO ALDEA	Zenbatekoa ■ Importe
DIFERENCIA ENTRE INGRESOS Y GASTOS CORRIENTES	
<b>1 Diru sarrera arruntak, guztira (diru sarrera arrunten koadroko 8. lerroko "zenbatekoa")</b> Total Ingresos corrientes ("Importe" de la fila 8 del cuadro de ingresos corrientes)	0,00
<b>2 Gastu arruntak, guztira (gastu arrunten koadroko 8. lerroko "zenbatekoa")</b> Total Gastos corrientes ("Importe" de la fila 8 del cuadro de gastos corrientes)	0,00
<b>3 SOBERAKINA<sup>1</sup> ■ EXCEDENTE<sup>1</sup></b>	0,00

<sup>1</sup> Egiaztatzeko eskatutako ekipamenduaren funtzionamendua ez duela toki erakundearen kontuetan defizitirik sortzen, ezinbestean 0 edo 0 baino altuagoa izan behar da "3 SOBERAKINA" lerroko zenbatekoa, "diru sarreraren eta gastu arrunten arteko aldea" koadrokoa.

<sup>1</sup> Para acreditar que la entrada en funcionamiento del equipamiento solicitado no provoca déficit en las cuentas de la entidad local, la cuantía de la casilla "Importe" correspondiente a la línea "3 EXCEDENTE" del cuadro "diferencia entre ingresos y gastos corrientes", necesariamente debe ser mayor o igual que 0.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Alava www.araba.eus	<b>OBRA ETA ZERBITZUEN FORU PLANA</b> <b>PLAN FORAL DE OBRAS Y SERVICIOS</b>	<b>Programa 2020-2021</b>	<b>SE1</b>  KONTZEJUAK CONCEJOS
	<b>Bideragarritasun ekonomikoaren plana ekipamendu obrak egiteko eskaeratarako</b> <b>Plan de viabilidad económica para peticiones de obras de equipamiento</b>		

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreakaren Saila

Departamento de Desarrollo Económico y Equilibrio Territorial

Lurralde Oreakaren Zuzendaritza

Dirección de Equilibrio Territorial

Toki Erakundea Entidad Local
Eskatutako obra Obra solicitada

### DIRU SARRERA ARRUNTAK ■ INGRESOS CORRIENTES

Onartutako azken kontuetako diru sarrera arruntak Ingresos corrientes de las últimas cuentas aprobadas	ekitaldia ejercicio .....	Zenbatekoa ■ Importe
1 Tasak ■ Tasas		
2 Transferentziak eta dirulaguntza arruntak ■ Transferencias y subvenciones corrientes		
3 Ondare bidezko diru sarrerak ■ Ingresos patrimoniales		
4 Besteren bat (zehaztu) ■ Otros (especificar):		
5 Diru sarrera arrunten guztirako partziala (1 + 2 + 3 + 4) ■ Subtotal de ingresos corrientes (1 + 2 + 3 + 4)		0,00
<b>Aurreikusitako diru sarrera arruntak, eskatutako ekipamenduaren funtzionamendukoak</b> Ingresos corrientes previstos del funcionamiento del equipamiento solicitado		Zenbatekoa ■ Importe
6 Aurreikusitako diru sarrera arrunten guztirako partziala ■ Subtotal de ingresos corrientes previstos		
7 Diru sarrera arruntak, guztira (5 + 6) ■ Total Ingresos corrientes (5 + 6)		0,00

### GASTU ARRUNTAK ■ GASTOS CORRIENTES

Onartutako azken kontuetako gastu arruntak Gastos corrientes de las últimas cuentas aprobadas	ekitaldia ejercicio .....	Zenbatekoa ■ Importe
1 Emandako zerbitzuen gastuak ■ Gastos de prestación de servicios		
2 Kudeaketa gastuak ■ Gastos de gestión		
3 Finantza gastuak ■ Gastos financieros		
4 Maileguen amortizazioa ■ Amortización de préstamos		
5 Besteren bat (zehaztu) ■ Otros (especificar):		
6 Gastu arrunten guztirako partziala (1 + 2 + 3 + 4 + 5) ■ Subtotal de gastos corrientes (1 + 2 + 3 + 4 + 5)		0,00
<b>Aurreikusitako gastu arruntak, eskatutako ekipamenduaren funtzionamendukoak</b> Gastos corrientes previstos del funcionamiento del equipamiento solicitado		Zenbatekoa ■ Importe
7 Aurreikusitako gastu arrunten guztirako partziala ■ Subtotal de gastos corrientes previstos		
8 Gastu arruntak, guztira (6 + 7) ■ Total Gastos corrientes (6 + 7)		0,00

DIRU SARREREN ETA GASTU ARRUNTEN ARTEKO ALDEA DIFERENCIA ENTRE INGRESOS Y GASTOS CORRIENTES	Zenbatekoa ■ Importe
1 Diru sarrera arruntak, guztira (diru sarrera arrunten koadroko 7. lerroko "zenbatekoa") Total Ingresos corrientes ("Importe" de la fila 7 del cuadro de ingresos corrientes)	0,00
2 Gastu arruntak, guztira (gastu arrunten koadroko 8. lerroko "zenbatekoa") Total Gastos corrientes ("Importe" de la fila 8 del cuadro de gastos corrientes)	0,00
3 SOBERAKINA <sup>1</sup> ■ EXCEDENTE <sup>1</sup>	0,00

<sup>1</sup> Egiaztatzeko eskatutako ekipamenduaren funtzionamendua ez duela toki erakundearen kontuetan defizitirik sortzen, ezinbestean 0 edo 0 baino altuagoa izan behar da "3 SOBERAKINA" lerroko zenbatekoa, "diru sarrerren eta gastu arrunten arteko aldea" koadrokoa.

<sup>1</sup> Para acreditar que la entrada en funcionamiento del equipamiento solicitado no provoca déficit en las cuentas de la entidad local, la cuantía de la casilla "Importe" correspondiente a la línea "3 EXCEDENTE" del cuadro "diferencia entre ingresos y gastos corrientes", necesariamente debe ser mayor o igual que 0.